

Bilboko jaietako euskal erromeria



Jaietako egitarau ofizialean erromeria, domekarik domekara egunero, arrastiko 8etan asteko ordua iragarrita egon da. Aurton, oster, erromeria, iru egunetan gitxienez, iragarritako ordurik sano gora asi da. Belu. Bateko, eguenean eta barikuan aurreko jantza erakustaldia beraren ordutik kanpo amaitu zan sano, erromeriari, egun bakotxean, ia ordu erdi kenduta. Ordua ordu, txo! Ori ez eze, barikuan bertan be, oiko amaiera ordutik, gaueko 10etan, baino ordu erdi leenago amaitu zan, flamenko kitarrajoleak probak egin bear ebazala-eta. Bertan begira egon gintzazan plaza-jantzariok eskuak bete euli itzita, ze inork be ez euskun murtik esan edo iragarri aren ganeko. Baia besteko, ganorabakokerietan gorenik bada, azken domekan be, asikerako ordu erdian ez zan bape musikaririk agiri, jantzarien artean borondate oneko txistulari batek musikaririk ezearen lekua bete artean, ordainduta egon barik, jakina.

Baia au guztiau ez da gaur goizeko ogia, atzoko ogi gogorra baino, ze bai igaz baita igazleenean be antzeko ganorabakokeria bizi bear izan genduan bertaratutako erromeriazaleok. Zaarrak barri.

Euskal erromeria jaietako Mari-errauskiñe biurtu da, aurki. Ez dau aspaldian ondo funzionetan. Eta or eratzailen itzikeria, ardurabakokeria eta ganorabakokeria, azken baten, agirikoak dira sano. Jaietako batzordekoeri eskatu gura deutset, neure eta erromeriazale askoren izenean, datozen urteetan erromeria eratzeko ardurea erromeriazaleonganako ardura eta begirunerik txikerrena erakutsiko deuskuezan beste eratzaille batzuen eskuetan iztea, arren.

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**